

ITOIZ, UDAKO SESIOAK

Zaletasunetik haratago

NAIA ARANTZAMENDI

Mutriku eta Ondarroa artean sortua, Euskal Herriko rock panorama astindu zuen Itoiz musika talde mitikoaren abeslari Juan Carlos Pérez da *Itoiz, udako sesioak* filmaren protagonista. Bere begiradatik, gogoeta sakon batean barneratzen gara ordura arte ikusi gabeko zinta bilduma baten aurkikuntza abiapuntu hartuta.

Zale grina oinarri, proiektua mar txan jarri eta bilaketan murgildu zirenean udako sesioen zinta bat agertu zen, eta horrek guztia aldatu zuen. Lehen artxibo hori topatzeak hasierako faseari irudi eta soinuak jartzeaz gain, Juan Carlosen interesa piztea ekarri zuen. Hor topatu zuten filmaren bihotza.

Larraitx Zuazo, Zuri Goikoetxea eta Ainhoa Andracka zuzendariek dokumental klasikoaren erritmo eta egiturak hausten dituzte filmean. “Hamaika modutara egin daiteke baina guk ekarpen bat egiteko gogotik abiatu genuen proiektua eta ikuspuntu zinematografikoren aldetik ere zerbait ezberdina proposatu nahi genuen”, argitu du Ainhoa Andrackak.

Taldearen lider izandakoak bidaia kataritiko bat egiten du, taldeak unerik gorenean pop estilora eman zuen aldaketa eta osteko desegitea hausnartzen ditu, taldearen muinera jo eta iraganarekin adiskidetzeko baliokodion bidaia eginez. “Juan Carlosek



Ainhoa Andracka, Larraitx Zuazo eta Zuri Goikoetxea.

JORGE FUENBUENA

“Hamaika modutara egin daiteke baina guk ekarpen bat egiteko gogotik abiatu genuen proiektua”

dokumentala egiteko baimena ematetik parte aktibo izatera eman zuen pausoak dena aldatu zuen, benetako prozesu bat egin zuen berak eta inplikazio handia izan zuen”, azaltzen du Larraitx Zuazok.

Filmak hiru geruza lantzen ditu, fikzioaren bitartez kontatutako haurtzarora, artxibo irudiak eta orainaldiko topaketak. Hiru alderdien arteko uztartze-prozesuan tonuaren bilaketa lan zaila izan dela aitortu dute zuzendariek. “Ildo narratibo guztiek elkar osatzeko oreka lortzea izan da zailena, hala nola, Juan Carlos barneratzeko aukera eskaintzen zuen gailu bat lortu nahi genuen, ekarpen bat egiteko errelatoari”, dio Zuri Goikoetxeak.

Hasieratik filmaren bilaketa eten-gabe batean aritu da hirukotea, gidotik hasi eta muntaiara arte, eta hiruen artean zuzentzeko formula egokia topatzea gakoa izan dela aitortu dute. “Modu oso naturalean egin dugu. Gainera proiektuaren konplexutasuna kontuan izanda formula egokiena izan da, sarean lan egin dugu eta aberasgarria izan da, pisuak modu naturalean banatu baititugu”.

Taldea jarraitu duten eta jarraitzen duten zaleetatik haratago joateko egindako filmak ibilbide oparoa izan du. “Taldea ezagutzen ez zuten gazteen aldetik jasotakoa bereziki ederra izan da, taldearekiko interesa piztu dugulako”, gehitu du Zuri Goikoetxeak. Taldeaz haratago ere memoriaz hitz egiten duen filma da, izandako gazteari begiratzeara dakarrena eta edonor identifikatuta sentitzeko moduko gaiak jorratzen dituen.

Zinemira sailean dago filma eta zuzendariek ibilbide baten amaiera “bikain” bezala hartu dute gonbita. “Etxean hasitako ibilbidea etxean amaituko dugu eta hori oso polita da, opari bat da”.

Cuando todos los caminos llevan a Itoiz

JON PAGOLA

Los donostiarros Uxue Estrada, Nora Azurza y Peru Blanco son tres universitarios de veintiún años que, pese a su corta edad, bañan las canciones de su proyecto pop-rock, Indabe, de un sentimiento nostálgico. Borla es una de las formaciones que, junto a Tatzers o Hiuzz, están revolucionando el subsuelo musical de Pamplona tocando en salas, bares y gaztetxes. TOC, un joven cuarteto de Mungia (Bizkaia), acaba de dar un salto cuantitativo al fichar por el sello Oso Polita, de la todopoderosa promotora Last Tour. Aramu, por su parte, un quinteto de pop de guitarras vizcaíno, se ha hecho un hueco en el pelotón de bandas independientes vascas después de quedar finalistas en el concurso de maquetas de la cadena de radio musical Gaztea de EITB. Todos ellos tienen en común el uso del euskera como forma de expresión. Todos aman a Itoiz, que ha dejado de ser una rara avis para las nuevas generaciones de músicos en Euskal Herria.

Ninguno de ellos había nacido cuando la revista “Muskaria” encum-

bró a Itoiz como mejor grupo de rock de Euskadi en 1981. Ni de lejos. Jon Salinas, por ejemplo, es de 1999. Canta y toca el bajo en Tatzers, tal vez los responsables de haber vuelto a poner de moda la música de guitarras entre una parte significativa de la juventud vasca. El bum llegó cuando la canción “Goizean Oskorri”, del EP “Hiruzpalau amets larri”, de 2021, empezó a tomar vuelo. Un *hit* con nervio que atendía a las leyes universales de la música pop (guitarras eléctricas, armonías vocales, primorosas melodías) cantado en euskera. Tatzers empezaron a ser comparados entonces con Itoiz y otros compañeros de aventuras de los años ochenta como Zarama y Hertzainak. Con el tiempo se ha convertido en una comparación recurrente. “No me importa que nos digan que nos parecemos a ellos, porque somos superfans de todos esos grupos”, afirma Josu.

Cuando se fue a estudiar el grado de Bellas Artes a Bilbao empezó a descubrir bandas euskaldunes que no eran tan “macarras” y atendían a sonidos más poperos. La música en euskera no es un coto reserva-



do al ska, el rock duro o el heavy. El músico cita a la banda de post-punk Vulk, que ya no están en activo. “Me influyeron bastante y con ellos hice clic. Antes de Tatzers estaban Vulk”. “Cada uno de nosotros viene de un estilo diferente, pero lo que los tres

tenemos en común es Itoiz”, tercia Martín Ziriza, vocalista de Borla y que también forma parte de Tatzers.

Los temas de Indabe o Aramu son bastante atemporales y aseasonados, pero el legado de los autores de “Hegal egiten” alcanza a bandas

que se salen un poco de la típica formación de rock (cantante, guitarra, bajo y batería) y se atreven con estilos más actuales y modernos. TOC, por ejemplo, no renuncian al uso del *autotune* y sus temas tienen a veces un deje tecno-pop a lo New Order o el indie británico de los 2000. Sus miembros reconocen que su cóctel musical ha estado marcado por la influencia tanto de grupos anglosajones del siglo XXI (The Strokes, The Voidz, Fontaines D.C.) como de Itoiz o Hertzainak.

Itoiz fueron a su bola durante toda su andadura (1978-1988), cantando sobre petirrojos en la Euskadi incendiaria del momento. Nacieron cuando estaba en boga el folk, la canción protesta y el rock progresivo. La banda explotó comercialmente a mediados de los ochenta, cuando el rock radical vasco era la banda sonora del momento. Durante muchos años fue aquel grupo que los *boomers* recordaban con añoranza en sus tiempos de juventud. Ya no. El poder de su música se manifiesta ahora de una forma natural y desenfadada en una serie de grupos que defienden su aportación.